

Jarduera nagusiak

Gure enpresak bere negozio-eredua ondo funtziona dadin, hainbat jarduera nagusi garatu behar ditu: kalimotxoaren errezeta estandarra ekoiztu eta lata-formatuan ontziratzea, zaporearen eta kalitatearen koherentzia bermatuz. Horrez gain, hornitzaileen kudeaketa, ekoizpen- eta banaketa-logistika eta salmenta-kanalen antolaketa (supermerkatuak, ekitaldiak, jaialdiak) funtsezkoak dira. Azkenik, marketin- eta komunikazio-jarduerak egingo dira, produktua ezagutarazteko eta publiko gaztearen artean posizionatzeko.